

ZURE APP-ETI FLIP-INDY

Askotan denborarekin erabiltzeari uzten diogun aplikazioak deskargatzen ditugu, edo ireki ere egiten ez ditugunak. Hala ere, zure mugikorrean erabiltzen ez dituzun aplikazioak edukitzeak espazioa kontsumitzeaz gain, zure segurtasunerako eta pribatutasunerako arriskuak ere ekar ditzake. Horregatik mugikorra garbi edukitzea oso garrantzitsua da.



Zergatik da arriskutsua

BEHARREZKOAK EZ DIREN APLIKAZIOAK edukitzea?

Kontsumitzen duten baliabide kopuruaz gain, espazioa, bateria eta datuak, segurtasun-arrisku handia suposatzen dute. Aldizka eguneratzen ez ditugun aplikazioek zibergaizkileek erabili ditzaketen ahultasunak izan ditzakete. Gainera, app askok gehiegizko eta behar ez diren baimenak eskatzen dituzte, zure pribatutasuna arriskuan jarriz.



IDENTIFIKATU ETA EZABATU



Zure erabilera aldizka berrikusi:

Zure mugikorraren erabilerari buruzko estatistikak aztertu, zer app erabiltzen dituzun eta zein ez identifikatzeko. Inaktiboak desinstalatu.



Segurtasuna lehenetsi:

Aplikazioak eguneratuta mantendu, eta baimenak berrikusi eta egokitu, beharrezkoa ez den informazioa ez erakusteko.



Mugikorra antolatu:

App-ak antolatzeko gaien arabera karpetak sortu, eta pantaila nagusia funtsezkoak eta gehien erabiltzen dituzun aplikazioekin bakarrik utzi.



Kudeaketa-tresnak:

Garbiketa-aplikazioak erabili ditzakezu zure mugikorraren errendimendua optimizatzeko eta beharrezkoak ez diren app-ak ezabatzeko.

